8. DIRU-LAGUNTZA EMATEA

Diru-laguntza ordaindu aurretik, emateko zioa izan zen helburua bete dela justifikatu beharko da. Emateko ebazpenean zehaztuko dira laguntzak ordaintzeko epeak.

Nolanahi ere, Foru Aldundiak ez du baztertzen ekipoa zuzenean eskuratu eta ondoren entitate onuradunei lagatzea, baliabide materialak eskuratzearen kostua merkatzearren.

9. ONURADUNEK DIRU-LAGUNTZA EMATEKO ZIOA IZAN ZEN HELBURUA BETE DELA JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA ERA

Balaibide materialak diru-laguntzaren onuradunak erosi baditu, dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko ditu hori justifikatzeko, diru-laguntza ematen denetik hasita bi hilabeteko epean eta, edozein modutan, abenduaren 31 baino lehen.

10. EZ-BETETZEA ETA ITZULTZEA

Baldintzak betetzen ez badira, ebazpen bidez adieraziko da esleitutako diru-kopuruak edo ordaindutako edo ordaintzeko dauden diru-kopuruak jasotzeko eskubidea galdu dela, bai eta jasotako kopuruak (gehi berandutze-interesak) itzuli behar direla ere, bidezko diren beste egintza batzuk gorabehera. Kopuru horiek sarrera publikotzat joko dira dagozkion lege-ondorioetarako. Ezbetetze kasuak hauek dira:

a) Justifikatzeko obligazioa ez betetzea.

b) Horretarako eskatutako baldintzak bete gabe diru-laguntza lortzea.

c) Laguntza emateko zioa izan den helburua ez betetzea.

d) Diru-laguntza ematean onuradunari ezarri zaizkion baldintzak ez betetzea.

e) Kontrolatzeko jarduerei uko egitea edo eragoztea.

f) Burutu beharreko jardueraren kostua baino laguntza handiagoak jasotzea. Kasu honetan, jardueraren kostuaz gainekoa itzuli beharko da.

g) Jarduerak ezarritako epeetan ez hastea, edo bi hilabete baino gehiago gelditutа egotea, administrazio esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.

h) Helburu horretarako beste diru-laguntza batzuk lortu direla egiaztatzea, aldez aurretik aitortu ez bada.

11. ALDAKETAK

Diru-laguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatuz gero, eta, hala badagokio, helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batetik diru-laguntzak edo laguntzak lortuz gero, laguntzak emateko ebazpena alda daiteke.

12. ARAU OSAGARRIAK

Oinarri hauetan aurreikusi ez diren alorretan Araba Lurralde Historikoaren diru-laguntzei eta transferentziei buruzko otsailaren 7ko Foru Arauan ezarritakoari jarraituko zaio.

8º. CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

El pago de las subvenciones se realizará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió. La resolución que las otorgue determinará los plazos y fases en los que las ayudas se harán efectivas.

No obstante, al objeto de obtener un abaratamiento del coste de adquisición de los medios materiales, la Diputación Foral se reserva la posibilidad de adquirir directamente el equipo para su posterior cesión a las Entidades beneficiarias.

9º. PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN POR PARTE DEL BENEFICIARIO/S DEL CUMPLIMIENTO DE LA FINALIDAD PARA LA QUE SE CONCEDIÓ LA SUBVENCIÓN

En el caso de que los medios materiales hayan sido adquiridos por el beneficiario de la subvención, la justificación se realizará mediante la aportación de las correspondientes facturas en el plazo de dos meses desde la concesión de la subvención y, en todo caso, antes del 31 de diciembre.

10º. INCUMPLIMIENTO Y REINTEGRO

En los supuestos de incumplimiento, mediante resolución se declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades asignadas, de las cantidades ya abonadas o pendientes, así como la obligación de reintegrar las cantidades percibidas, y los intereses de demora, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes. Son supuestos de incumplimiento:

a) Incumplimiento de la obligación de justificación.

b) Obtención de la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

c) Incumplimiento de la finalidad para la que la subvención fue concedida.

d) Incumplimiento de las condiciones impuestas al beneficiario con motivo de la concesión de la subvención.

e) Negativa u obstrucción a las actuaciones de control.

f) Percepción de subvenciones superiores al coste de la actividad a desarrollar. En este caso procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad.

g) La no iniciación de las intervenciones en los plazos señalados o su paralización por tiempo superior a dos meses por causas imputables a la Administración adjudicataria.

h) La acreditación de la existencia no declarada previamente de otras subvenciones con el mismo destino.

11º. MODIFICACIONES

Toda alteración en las condiciones que se tengan en cuenta para la concesión de la subvención y, en su caso, la obtención concurrente de subvenciones o ayudas por cualquier Entidad Pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

12º. APLICACIÓN SUPLETORIA

Para todo lo no previsto en esta Bases se estará a lo dispuesto en la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava.

**4.528**

**67/2000 FORU DEKRETUA, Diputatuen Kontseiluarena, higiezinen alokairuen eta akzio eta inbertsio kolektiboko partizipazioen ordainketa eta eskualdaketek eragindako ondarezko irabazien gainean egin beharreko atxikipena aldatzen duena.**

Zergei buruzko jurisprudentzia berrienak arauzko betebehar hau aldarrikatzen du: zergaren azken eraberritzean ezarritako gutxieneko tasetan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren pean dauden etekinei buruz atxikipen edo konturako sarrera jakin batzuk ezarri behar direla. Bestalde, alokatutako ondasun higiezinen etekinen gaineko atxikipenak direla eta, honako hau adierazten da: atxikipena kalkulatzeko erabiltzen den oinarria errenta osoa izango dela, inolako gasturik kendu gabe. Gastu kengarrien eraginez, oinarri hori gutxiturik geldituko da, zergaren kuota kalkulatzean.

Jurisprudentzia horretan argudiatzen denez, konturako ordainketak ezartzeko eskubidea funtsa ordainketa hori zergadun bakoitzaren zerga kuotara egokitzea da. Eta eskubide horren balioa gal-

**4.528**

**DECRETO FORAL del Consejo de Diputados 67/2000, por el que se modifica la retención a practicar sobre los arrendamientos de inmuebles y sobre ganancias patrimoniales derivadas de transmisiones y reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva.**

La más reciente jurisprudencia tributaria está proclamando la obligación normativa de establecer determinadas retenciones o ingresos a cuenta de los rendimientos sometidos a tributación por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en los tipos mínimos establecidos en la última reforma del Impuesto. Por otra parte, y en lo que se refiere a la retención sobre los rendimientos de inmuebles arrendados, se indica que la base sobre la que se calcula la retención es la renta íntegra, sin ningún gasto deducible, base que queda disminuida en el cálculo de la cuota tributaria por la incidencia de gastos deducibles.

Según argumenta la referida jurisprudencia, el derecho a establecer pagos a cuenta surge en la medida en que éste se acomoda a la cuota tributaria de cada contribuyente y se desvirtúa progresi-

duz doa, konturako sarrera zorra baino handiagoa den neurrian. Hori dela kausa, kuota bereizgarriak sortzen dira. Kuota horiek negatiboak izan daitezke, eta gainera, hiritarrari hertsapenez eskatutako diruzaintzako mailegu edo aurrerakin moduan (interesik gabe edo interes txikiarekin) funtziona dezakete.

Halaxe gertatzen da, hiri ondasun higiezinak alokatzeagatik edo berralokatzeagatik jasotzen diren errentei ezarritako atxikipenean. Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuak %17an finkatzen du egin beharreko atxikipen hori. Foru dekretu horren bidez, kapital errentetako eta ondare irabazi batzuetako atxikipenak edo konturako sarrerak egitera beharturik dauden pertsonei eta erakundeei aplikatu beharreko araudia onartzen da. Atxikipen horiek egiterakoan, alokatzaileari ordaindutako kontzeptu guztiak hartzen dira kontuan, Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik. Beraz, etekin garbia (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren pean dagoena) hura baino txikiagoa da, eta daitekeena da zerga kuota hasieran ordaindutako kopuruak baino txikiago izatea.

Horregatik da beharrezkoa jurisprudentziako tesi horietara egokitzea, bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, bai Sozietateen gaineko Zergan, hiri ondasun higiezinak alokatzeagatik edo berralokatzeagatik lortutako etekinen gaineko atxikipen tasa.

Beste alde batetik, ekainaren 23ko 3/2000 Erregeren Lege Dekretuak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Sozietateen gaineko Zergan egindako hainbat aldakuntzaren barruan, %18an jarri du inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako errentei aplikagarri zaien ehunekoa. Erregeren lege dekretu hori 2000ko ekainaren 24ko Espainiako Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu zen, eta horren bidez familien aurrezkia eta enpresa ertain eta txikiak sustatzeko presazko neurriak onartzen dira.

Atxikipen horiei dagokienez, 6/1999 Foru Dekretuko 1.2.b) artikuluan arautitako konexio puntuak honako ondorio hau dakar: akzioak eta partaidetzak merkaturatzeko ahalmena duten sozietate kudeatzaile, erakunde merkaturatzaile eta bitartekariek Estatuak eta Foru Aldundiak atxikipenei buruz emandako arauei kasu egin behar dietela, esku hartzen duten eragiketei aplikagarri zaien ehunekoa zehazteko. Foru dekretu hori urtarrilaren 26ko Diputatuen Kontseiluak onetsi zuen, eta horren bidez, kapital errentetan eta ondare irabazi jakin batzuetan atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartutako pertsona eta erakundeek aplikatu beharreko araudia onartu zen. Konexio puntu horren bidez, berriz, sozietate kudeatzaile, erakunde merkaturatzaile eta bitartekari horien zergapetzea kokatzen du, lurraldeagatik, hartzaile edo onuradunaren ohiko bizitoki edo zerga bizitokiaren arabera.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipena egiteko eragiketak errazteko asmoz, errenta horiei aplikagarri zaien atxikipen ehunekoa, %20koa zena, murriztu eta %18ra ekarri da.

Zerga-Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena eta Aholkularitza Batzordeak emandakoa ikusita.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta gaurko egunez egindako bilkuran Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DUT:

1. artikulua: Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez, kapital errentetako eta ondare irabazi batzuetako atxikipenak edo konturako sarrerak egitera beharturik dauden pertsonei eta erakundeei aplikatu beharreko araudia onartzen da.

Bat. Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuko 14. artikulua aldatzen da. Foru dekretu horren bidez, kapital errentetako eta ondare irabazi batzuetako atxikipenak edo konturako sarrerak egitera beharturik dauden pertsonei eta erakundeei aplikatu beharreko araudia onartzen da. Aurrerantzean, hau izango da artikulu horren testua:

"14. artikulua: Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gainean egin beharreko atxikipena hau izango da: atxikipen oinarriaren %18koa."

Bi. Urtarrilaren 26ko 6/1999 Foru Dekretuko 18. artikulua aldatzen da. Foru dekretu horren bidez, kapital errentetako eta ondare ira-

vamente cuando se recauda a cuenta por encima de la deuda, dando lugar a cuotas diferenciales que pueden ser negativas y que pueden, además, operar a modo de préstamos o anticipos de tesorería, sin interés o a bajo tipo de interés, exigidos coactivamente al ciudadano.

Este es el caso de la retención establecida para las rentas procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, que el Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, fija en el 17%. Al tratarse de retenciones sobre todos los conceptos que se satisfagan al arrendador, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, resulta que el rendimiento neto, que es el que resulta gravado por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, es inferior a aquél, pudiendo resultar una cuota tributaria inferior a las cantidades pagadas a cuenta inicialmente.

Es por ello que se impone acomodar a las tesis jurisprudenciales mencionadas la regulación reglamentaria, tanto en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas como en el Impuesto sobre Sociedades, del tipo de retención de los rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos.

Por otra parte, el Real Decreto-Ley 3/2000, de 23 de junio, por el que se aprueban medidas urgentes de estímulo al ahorro familiar y a la pequeña y mediana empresa, publicado en el Boletín Oficial del Estado el día 24 de junio de 2000, en el ámbito de una serie de modificaciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre Sociedades, ha situado en el 18 por 100 el porcentaje de retención aplicable a las rentas obtenidas como consecuencia de las transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones en instituciones de inversión colectiva.

En relación con estas retenciones, el punto de conexión contemplado en el artículo 1.2.b) del Decreto Foral 6/1999, del Consejo de Diputados de 26 de enero, que aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, que sitúa la exacción de las mismas en la Administración competente por razón de territorio según la residencia habitual o domicilio fiscal del perceptor o beneficiario, implica que las sociedades gestoras, las entidades comercializadoras y los intermediarios facultados para la comercialización de las acciones y participaciones deben atender a las regulaciones reglamentarias estatal y foral sobre retenciones para fijar el porcentaje a aplicar en las operaciones en las que intervienen.

Con el propósito de simplificar la operativa de la práctica de la retención sobre las ganancias patrimoniales derivadas de transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva, se reduce del 20 al 18 por 100 el porcentaje de retención aplicable a estas rentas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

A propuesta del Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada el día de hoy,

DISPONGO:

Artículo 1.- Modificación del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales.

Uno. Se modifica el artículo 14 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba la normativa a aplicar por las personas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedando redactado en los siguientes términos:

"Artículo 14.- Importe de las retenciones sobre ganancias patrimoniales derivadas de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva.

La retención a practicar sobre las ganancias patrimoniales derivadas de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva, será el resultado de aplicar a la base de retención el porcentaje del 18%."

Dos. Se modifica el artículo 18 del Decreto Foral 6/1999, de 26 de enero, por el que se aprueba la normativa a aplicar por las per-

bazi batzuetako atxikipenak edo konturako sarrerak egitera behartu-rik dauden pertsonei eta erakundeei aplikatu beharreko araudia onartzen da. Aurrerantzean, hau izango da artikulu horren testua:

8. artikulua: Ondasun higiezinak alokatzeagatik edo berralokatzeagatik lortutako errenten gaineko atxikipenen zenbatekoa.

Hiri ondasun higiezinak alokatzeagatik edo berralokatzeagatik lortutako etekinen gaineko aplikatu beharreko atxikipen tasa, ondasun horien kalifikazioa edozein dela ere, honako hau izango da: alokatzaileari ordaintzen zaizkion kontzeptu guztien (Balio Erantsiaren gaineko Zerga izan ezik) %15.

Ehuneko hori erdibitu egingo da, baldin hiri ondasun higiezina Ceutan edo Melillan badago, zergaren foru arauko 83. artikuluan jarritakoari jarraituz."

2. artikulua: Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horren bidez, Sozietateen gaineko Zergaren araudia onartu zuen uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua garatzen da.

Maiatzaren 20ko 51/1997 Foru Dekretuko 2. eta 3. artikuluak aldatzen dira. Foru dekretu horren bidez, Sozietateen gaineko Zergaren araudia onartu zuen uztailaren 5eko 24/1996 Foru Araua garatzen da. Aurrerantzean, hau izango da artikulu horien testua:

"2. Hiri ondasun higiezinak alokatzean eta berralokatzean, %15ekoa izango da.

Ehuneko hori erdibitu egingo da, bi baldintza hauek betez gero: a) Ceutan edo Melillan dauden hiri ondasun higiezinetatik datozen errentak izatea. b) lurralde haietan helbideratuta dauden edo establezimendu nahiz sukurtsalen bidez lurralde haietan diharduten erakundeek lortutako errentak izatea.

3. Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partaidetzak eskualdatu edo itzultzean, %18koa izango da."

AZKEN XEDAPENA

Hiri ondasun higiezinak alokatu eta berralokatzean aplikatu beharreko atxikipen tasaren aldaketa 2000ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean. Inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak eta partaidetzak eskualdatu edo itzultzeagatik lortutako ondare irabazien gaineko atxikipen tasaren aldaketa, berriz, 2000ko ekainaren 25ean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2000ko uztailaren 4an.– Diputatu Nagusia, RAMON RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZARATE PEREZ DE ARRILUCEA.

sonas y entidades obligadas a practicar retenciones o ingresos a cuenta en las rentas de capital y determinadas ganancias patrimoniales, quedando redactado en los siguientes términos:

"Artículo 18.- Importe de las retenciones sobre arrendamientos y subarrendamientos de inmuebles.

La retención a practicar sobre los rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, cualquiera que sea su calificación, será el resultado de aplicar el porcentaje del 15% sobre todos los conceptos que se satisfagan al arrendador, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Este porcentaje se dividirá por dos cuando el inmueble urbano esté situado en Ceuta o Melilla, en los términos previstos en el artículo 83 de la Norma Foral del Impuesto."

Artículo 2.- Modificación del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, que aprobó la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades.

Se modifican los apartados 2 y 3 del artículo 56 del Decreto Foral 51/1997, de 20 de mayo, por el que se procede a desarrollar reglamentariamente la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, que aprobó la normativa reguladora del Impuesto sobre Sociedades, quedando redactados en los siguientes términos:

"2. En el caso de arrendamiento y subarrendamiento de inmuebles urbanos, este porcentaje será el 15%.

Este porcentaje se dividirá por dos cuando se trate de rentas procedentes de inmuebles urbanos situados en Ceuta, Melilla o sus dependencias, obtenidas por entidades domiciliadas en dichos territorios o que operen en ellos mediante establecimientos o sucursal.

3. En el caso de transmisiones o reembolsos de acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva, será el 18%."

DISPOSICIÓN FINAL

La modificación del tipo de retención en el caso de arrendamiento y subarrendamiento de inmuebles urbanos entrará en vigor el 1 de julio de 2000, y la modificación del tipo de retención sobre ganancias patrimoniales derivadas de las transmisiones o reembolsos de acciones y participaciones de instituciones de inversión colectiva entrará en vigor el 25 de junio de 2000.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de julio de 2000.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado Foral titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

*Foru Arauak*

## NEKAZARITZA ETA INGURUMEN SAILA

**4.496**

**377/00 zenbakiko FORU AGINDUA, ekainaren 28koa, zeinaren bidez behin-behineko onartzen baitira, batetik, Lantziegoko barrutian (Araba) 1.100 ha Ureztatzeko Bihurtzeko Obren Ingurumen Erasoari buruzko azterketa, eremu hori Ureztatzeko Bihurtzeko Obren Proiektuari erantsiko zaiona, eta bestetik, proiektuko obrak burutzeak eragingo dituen azalerei dagokien Neurri Zuzentzaileen eta Ingurumen Birgaitzearen Proiektua.**

Nekazaritza eta Ingurumen Sailak Lantziegoko udal barrutian 1.100 ha lur ureztatzeko bihurtzeko proiektu bat burutzeko asmoa du, horretarako pilaketako hiru ur-biltegi (363.129 m3, 117.459 $m^3$ eta 57.248 $m^3$–koak) eraikiz eta 106 km-ko luzera izango duen ureztatze-sare bat instalatuz.

Proiektuaren ezaugarriak direla-eta, batez ere biltegiratze-ahalmenari eta egin beharreko presei dagokienez, Ingurumen Erasoaren Banakako Ebaluazioa egin behar zaien obra eta jardueren zerrendan dago sartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearekin bat etorriz, eta ekainaren 28ko 1302/86 Legegintzako Errege Dekretuan eta hori garatzeko arauetan ezarritako prozedurari jarraituz (irailaren 30eko 1131/88 Errege Dekretua, ingurumen erasoa ebaluatzeko prozedura betetzeko erregelamendua onartzen duena).

*Ordenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y MEDIO AMBIENTE

**4.496**

**ORDEN FORAL número 377/00 de 28 de junio, por el que se aprueba provisionalmente el estudio de Impacto Ambiental de Obras de Transformación en Regadío de 1.100 Ha en el término de Lanciego (Alava), que se incorpora al Proyecto de Transformación en Regadío de dicha zona, así como el Proyecto de Medidas Correctoras y Restauración Ambiental de las superficies que se verán afectadas por la ejecución de las obras proyectadas.**

El Departamento de Agricultura y Medio Ambiente tiene previsto llevar a cabo un proyecto de transformación en regadío de 1.100 Ha de terreno en el término municipal de Lanciego, mediante la construcción de tres balsas de acumulación de 363.129 m3, 117.459 $m^3$ y 57.248 $m^3$ e instalación de una red de riego de 106 Km de longitud.

Dadas las características del proyecto, en particular las que hacen referencia a la capacidad de embalsamiento, así como a las dimensiones de las presas a construir, éste se halla incluido en la lista de obras y actividades sometidas a Evaluación Individualizada de Impacto Ambiental, conforme a la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, de acuerdo con el procedimiento contemplado en el Real Decreto Legislativo 1.302/86, de 28 de junio, y su normativa de desarrollo (Real Decreto 1.131/88, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución del procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental).